



DIRU SARRERAK

Konpainiaren diru-iturri nagusia Ondarroan, kaleetan, itsasoan eta hondartzetan egun zoragarri horretaz gozatuko duten **bezeroak** izango dira.

Diru-sarrera horiek asteburuetan izango dira, eta zerbitzua eskaintzeko egun egokiak larunbata eta igandea izango dira.

Kalitate eta arreta handiko produktu pertsonalizatua eskaintzen da, Ondarroako jatetxerik onenean bazkaria eta itsasora irteera eskainiz. Prezioak honako hauek dira:

Prezio estandarra:

125 euro/pertsona

Prezio murriztua:

75 euro/pertsona

Prezio murriztu hori familia ugarietarako, desgaitasuna duten pertsonetarako eta erretiratuetarako aplikatuko zaie.

Kutxabank

Kutxabanki 72.500 euroko mailegua eskatuko diogu. Zenbateko hori hilero soldata eta alokairuetarako behar dugun kopuruaren arabera da, hau da, 14.500 euroen hilabete bakoitzean, gure lehenengo denboraldia osatzen duten 5 hilbetetz.

% 5eko urteko interes-tasa kalkulatu dugun.





Udala

Udalaren babesletzari dagokionez, bertako ekonomia garatzen lagunduko duten ideia bideragarriak bultzatzeko ekin dio aurten Udalak. Hasierako aurrekontua 3800 €-koa izango da eta diru horrekin gure enpresa martxan jarriko dugu. Dirulaguntza hori hileroko banatuko dugu, laneko 5 hilabetetan.



Aldundiaren/Lea Artibaiko Eskualdearen laguntza

Azaro Fundazioaren bidez, Lea Artibai eskualdea garatzeko 3.000 euroko dirulaguntza ematea espero dugu. Diru-sarrera hileroko banatuko da 5 hilabeteetan.

